

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### UDAL ADMINISTRAZIOA

#### **Udal eraikinetako edukiontzi higienikoak hornitu, garbitu eta ordezteko lanak kontratatzeko lehiaketaren iragarkia**

2016ko abuztuaren 22an onetsi zen 2016/CONSPE0067 kontratazio-dosierra, udal eraikinetako edukiontzi higienikoak hornitu, garbitu eta ordezteko lanak esleitzeko.

1. Esleitzen duen toki-erakundea.

a) Erakundea: Gasteizko Udala.

b) Dosiera izapidetzen ari dena: Udal Administrazioa.

c) Dosier-zenbakia: 2016/CONSPE0067.

2. Kontratuaren xedea.

a) Xedearen deskribapena: udal eraikinetako edukiontzi higienikoak hornitu, garbitu eta ordeztea.

b) Kontratu mota: hornikuntzak.

c) CPV kodea: 349284806 Hondakin- eta zabor-edukiontzi eta kuboak.

d) Aldaerak onartzea: ez da bidezko.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: irekia.

c) Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: ez.

d) Gauzatzeko epea: bi urte

e) Luzapena: luzapen bat edo gehiago, gehienez urtebete arte.

4. Kontratuaren zenbatekoa, edo zenbatera artekoa:

a) Aurrekontua, BEZ barne: 42.739,02 euro. Kopuru horretatik BEZari dagozkio: 3.885,37 euro.

5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa

a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

b) Behin betiko bermea: kontratuaren aurrekontu osoaren (BEZik gabe) ehuneko 5, baldintzen-agirian aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

c) Berme osagarria: ez da eskatzen.

d) Ordaintzeko era: ikus administrazio-baldintzen agiria.

e) Balioespen-irizpideak: administrazio-baldintzen agirian adierazten direnak, beheranzko hurrenkeran.

f) Sailkapena (taldea, azpitaldea eta kategoria): ez da eskatzen.

- g) Kaudimen teknikoak: ikus administrazio-baldintzen agiria.
- h) Kaudimen ekonomikoak: ikus administrazio-baldintzen agiria.
- i) Kontratua gauzatzeko berariazko baldintzak: ikus administrazio-baldintzen agiria.
- j) Langileak subrogatzea: ez.

#### 6. Agiriak eskuratzea:

a) Lekua: ARCO fotokopia-denda —San Antonio kalea, 16; 01005 Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 232813 eta 945 140678, faxa: 945 140678—, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era nahiz 16:00etatik 19:30era bitartean.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

c) Dosierra aztertzea:

Udal Administrazioaren Saileko Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzuan aztertu ahal izango da dosierra —Oreitiasolo kalea, 5 beheak; 01006 Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 161469, faxa: 945 161487—, iragarkia ALHAOn agertu ondorengo lehen lanegunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: <http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak>

#### 7. Eskaintzak aurkeztea.

a) Aurkezteko epea: 15 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokitzuz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea. Ondorio horiei dagozkienetarako, San Martineko herritarrei laguntzeko bulegoa itxita dagoen egunak jaieguntzat joko dira —Udalaren web-orriko kontratatzailearen profilean emango da horien berri—.

b) Ordutegia: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

c) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorraren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 161600 fax-zenbakira (Erregistro Nagusia) igorri beharko da horren jakinarazpena.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio-baldintzen agiria.

Aurkezteko lekua: Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusia —Teodoro Dublang Margolaria-ren kalea, 25 - beheak; 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak.

e) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete.

f) Eskaintzak zabaltzea:

B gutun-azala —dokumentazio administratiboa— jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren egun baliodun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamar eta erdietan (10:30).

A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu behar diren balioespen irizpideak, prezioa izan ezik, balioesteko agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azala zabaltzen den asteazken berean, hamaika eta erdietan (11:30).

8. Iragarkien gastuak: esleipena jasotzen duenaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abuztuaren 23an

*Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzu Orokorreko burua*  
**BLANCA DÍAZ DE DURANA**